BERASTEGI LORATEGI BOTANIKOA ELDUAKO KASKOAN // 5

ataria

ASTEAZKENA
2021/07/21
9. urtea, 1.457. zenbakia
107.6 fm
www.ataria.eus
URTEKO HARPIDETZA KUOTA: 83 €

«Herritik sortzen den ekimena izatea nahi dugu»

USUE SUKIA ETA JOSU OZAITA
UZTURPEKO ZUZENDARIA ETA KILOMETROETAKO KOORDINATZAILEA

Kilometroak jaia hartuko du Ibarrak datorren urteko urriaren 2an; urte osoan zehar ekitaldiak antolatuko dituzte, eta herritarrak ere inplikatzea espero dute // 2

ENERITZ MAIZ

EUSKARABENTURA
ESKUALDEAN GUSTURA

Bost egunez Bidania-Goiatzen izan dira Euskarabenturan parte hartzen ari diren 80 gazteak, eta handik, Aulestira jo dute; euskara ardatz delarik, Euskal Herri osoko gazteen artean harremana sendotu eta ondo pasatzea da asmoa // 4

Tolosatik Donostiarako autobusa orduerdirokoa izango da // 6

Behar Zana elkartearen udalekuek erantzun «bikaina» // 7

ANOETA – 28 ETXEBIZITZA
2 ETA 3 LOGELA , GARAJE ETA TRASTELEKUAK
TERRAZA PAREGABEAK ETA MENDIETARA BISTAK

CONSTRUCCIONES ABURUZA, S.L.

Informazioa:
KALE BERRIA 48, BEHEA
20.150 VILLABONA

www.aburuza.com/iturtxulo
komertziala@aburuza.com
943 69 02 97/607 445 484

107.6 fm · www.ataria.eus
ASTEAZKENA, 2021eko uztailaren 21a

«Giroa sortu eta ondo bideratzen badugu, herria herriago egingo da»

USUE SUKIA ETA JOSU OZAITA
UZTURPE IKASTOLAKO ZUZENDARIA ETA KILOMETROETAKO KOORDINATZAILEA

Datorren urtean Kilometroak ospatuko dituzte Ibarran; urriaren 2an izango da festa eguna, baina eredu berriari jarraituz, urte guztian zehar dinamika ezberdinak antolatuko dituzte herritarren artean

I. S. A.

Irati Saizar Artola Ibarra

Ibarran ospatuko dira Kilometroak 2022an eta dagoeneko antolatzen hasiak dira Uzturpe Ikastolan, Usue Sukia zuzendariak azaldu duenez. Pasa den astean erabaki zuten nor izango den koordinatzailea: Josu Ozaita (Ibarra, 1980) antropologoari egokitu zaio.

Kilometroek badute koordinatzaile berria.

Usue Sukia: Duela urtebete hastapen talde bat sortua genuen Kilometroen inguruan lan egiteko, martxan geunden, baina pandemiagatik gelditu egin behar izan genuen. Aurten, berriro martxan jarri garenean, koordinatzaile ezberdinen proposamenak ateratzen hasi ziren gure artean eta Josuri proposatu genion.Pixka bat pentsatu badu ere, erronka onartu du.

Josu Ozaita: Hasiera batean uste nuen kargu honekin antropologiatik desbideratzen ari nintzela, baina ohartu naiz hau ere badela antropologia, festa delako eta Kilometroetako eredua ere aldatuta dagoenez, ikusi dut antropologo baten perfila egokia izan daitekeela honetarako.

Zer moduz doaz prestaketak?

Sukia: Duela urtebete egindako prozesuan, gelditu baino lehen, leloa eta logoa diseinatuta utzi genituen. Orain berriro jarri gara martxan eta irailetik aurrera zabalpena egiteko asmoa daukagu.

Ozaita : Oinarri bat sortuta dago, eta ikasturte berriarekin batera lanean hasten garenean, parte hartzea bultzatu nahi dugu urte guztiko ekimenen inguruan eta Kilometro egunaren beraren inguruan. Eguna bera urriaren 2an izango da. Herritarrek eta eragile ezberdinek parte hartzea nahiko genuke antolaketan, ez dugulako ikastolaren festa bat izatea nahi. Herritik sortzen den ekimen bat izatea nahi dugu.

Herritarrek antolaketan parte hartzea nahi duzue?

Ozaita: Hori da asmoa. Ibarran, gainera, ikastetxe bakarra dagoenez, atxikimendu bat dago ikastolaren eta herriaren artean, herritar guztiek sentitzen dute Uzturpe bere, eta hori islatu nahi dugu. Giro berezi bat sortu nahi dugu guraso, langile, ikasle ohi, ikasle eta beste guztien artean.

Nola irudikatu duzue datorren urtea?

Ozaita: Ikastolen Elkartean hausnarketa bat egin zen Kilometroak egitasmoaren ereduaren inguruan. Oraindik ez da gauzatu hausnarketa hori, eta Ibarrakoa izango da lehena kontzeptu berri hori landuko duena. Irekita dagoen zerbait da, sortu gabe dagoena. Urriaren 2ak garrantzia izango du, baina, agian, garrantzi handiagoa hartuko dute urte guztian zehar aurrera eramango ditugun dinamikek. Ekimen desberdinak antolatuko ditugu datorren urtean zehar. Horiez gain, baita ere, polita da batzordeetan sortzen den giroa eta Kilometroek sortzen duten atmosfera hori; horrek ondorena uzten duelako, bai ikastolan, eta baita herrian ere.

Irailetik aurrera antolaketarekin jarraituko duzue beraz.

Ozaita: Irailaren 24an tertulia moduko bat egingo dugu, world coffee dinamikaren antzeko zerbait. Mahai txikietan bilduko gara eta jendeak bere ekarpenak egingo ditu. Espazio bat izango da tertulia bat sortu eta gai hauen inguruan hitz egiteko. Urte guztiko dinamikak eta eguna bera izango ditugu ardatz eta hor sortuko da Ibarrako Kilometroak izango denaren kontzeptua. Gero, batzorde desberdinen bidez, horiek praktikan nola jarri prestatuko dugu.

Sukia: Bideo labur bat ere zabaldu dugu, 'nola amesten duzu urtea?' galdetuz, eta pixkana joango gara informazioa ematen.

Momentuz, zuentzako daukazue gordeta.

Sukia: Guk badakizkigu hainbat gauza, baina ez ditugu aurreratuko oraindik. Azaroaren 26an logoaren eta leloaren aurkezpen ofiziala egingo dugu. Eta arroparen berri ere emango dugu.

Ozaita: Azarora bitartean festaren ideia lantzen ariko gara eta behin aurkezpena eginda, praktikan jartzen hasiko gara.

Lanerako nola antolatu zarete?

Sukia: Azken bizpahiru hilabeteak daramatzagu elkartzen, hilean bi edo hiru aldiz, eta hasierako erabakien inguruan lanean hasiak gara: denda non jarri, almazena behar ote den, iraileko tertulia prestatu... hastapenetan gaude oraindik.

Ozaita: Ni lehengo astean hasi nintzen Kilometroen gaia lantzen, eta nabaritu nuen irakasleak oso inplikatuta ilusioz daudela, deigarri egin zitzaidan.

Sukia: Azken bi ikasturteak bereziak izan dira guztiontzat, eta Uzturperentzat, bereziki, azken lau urteak; eraikina mugitu zenetik honakoa. Hortaz, ekimen honek badakar kutsu positibo bat eta horrek lotzen gaitu.

Pandemia oraindik hor egoteak kezkatzen zaituzte?

Sukia: Bai, baina ikasi ere egin dugu. Orain ere badaezpada A plana eta B plana beti prestatzen ditugu.

Ozaita: Birusak zapuztu dezake, baina euri zaparrada eta haizete indartsu batek harrapatzen bagaitu ere berdin zapuztuko digu festa. Azken batean, urtean zehar egiten diren ekimenak ondo eta txukun ateratzen badira, horrekin geratuko gara; ez genuke egun batean soilik zentratu nahi.

Ibarran Kilometroak ospatzeak zer suposatzen du?

Ozaita: Ibarrarentzat aukera bat da Euskal Herriko mapan kokatu ahal izateko, ezagutzera emateko. Orain arte, esaterako, piperrak egin izan du lan hori, baina orain, Kilometroek ere herria erakusteko aukera emango digute eta baita jendea jasotzeko ere. Polita da Kilometroak festaren bidez, Ibarra eta Uzturpe Ikastola zer diren erakusteko aukera izatea.

Eta herritarren inplikazioa ere sekulakoa izan ohi da.

Ozaita: Kilometroetan giza baliabideak behar dituzu, jende mordo baten inplikazioa behar da, lan izugarria delako. Makroegitura bat sortzen da, auzolan erraldoi baten giroa hartzen duena, eta guztia ondo badoa, ondo bideratzen badugu eta giro hori sortzen asmatzen badugu, kohesio soziala sortzen da, herria herriago egiten da. Jende desberdina batzen da eta hori aberasgarria da, bai herriarentzako eta baita ikastolarentzako ere.

Sukia: Gure helburuetako bat ere hori izango da, pertsonen arteko harreman horiek eta gaur egun dagoen pertsona aniztasuna nola batu eta nola elkar ezagutu lantzea.

Ozaita: Kilometroak etorriko dira eta joan ere egingo dira, baina gero geratuko denak eragina izan dezake. Esaterako, 1998an Ibarran, Tolosan eta Anoetan ospatu ziren Kilometroak, eta horrek ere utzi zuen ondorena: eragile ezberdinen foro moduko bat sortu zen lehenik, eta hortik sortu zen Hauspoa elkartea. Begira zer eman duen ondoren. Horrelako dinamika eta giro bat herrian sortzea eta herriarentzat mugarri txiki bat markatzea zoragarria da.

IRAGARKI LABURRAK

Lana

Zerbitzaria. Zerbitzaria behar da. Interesatuak deitu 647 446 363 telefono zenbakira.

Zerbitzaria. Tolosako Casa Julian jatetxean zerbitzaria behar dugu. Interesatuek bidali curriculuma *lan eskaintza* erreferentziarekin: *casajulian1951@gmail.com.*

Paper kalea eraberritzeko lanak kontratatzeko prozesua abian da

Tolosako Udalak martxan jarri du eraberritze lanak egiteko lizitazioa; proiektua eginda dago eta maiatzeko osoko bilkuran mailegu aldaketa onartu zen obrekin hasteko

Erredakzioa Tolosa

Tolosako Udalak abiarazi du Paper kalea eraberritzeko prozesua. Obren lizitazioa ireki du jada, eta enpresek proposamenak aurkeztu ditzakete dagoeneko. Obrak esleitu ondoren hasiko dira lanak; enpresa esleipendunak 5 hilabete izango ditu obrak gauzatzeko. Lizitazioaren prezioa 559.108,7 eurokoa da (BEZa barne). Eraberritze lanen helburua da espazioaren irisgarritasuna, segurtasuna eta kalitatea hobetzea, Hiri Mugikortasun Iraunkorreko Plan berriaren barruan.

Paper kaleko eraberritze lanak egiteko hainbat alderdi eta plan aztertu dituztela esan du udalak: Mugikortasun Jasangarrirako Plana, Iurreamendi Eremuko Plan Berezia, ibilgailuen trafikoa, oinezkoen eta bizikleten zirkulazioa, irisgarritasun-araudia, eta argiteriaren eta euri-uren udal-sareak, besteak beste.

GALTZADA ETA ERDIBITZAILEA

Lanak Berazubi kaleko eta Iurreamendiko biribilguneen artean egingo dituzte, eta, zehazki, galtzadan eta erdibitzailean egingo dituzte. Erdibitzailea kenduko dute espazioa irabazteko eta txirrindulariak oinezko eta ibilgailu motordunetatik bereizteko. Beraz, bizikleta-bide berriaren zoladura eta seinaleztapena hobetuko dituzte, eta galtzadatik bereizita egongo da, izan ere, udalerriko bizikleta-ibilbide garrantzitsua baita bertakoa. Kalea 30 kilometro orduko eremu gisa indartuko da, 3 metroko zabalerako errepideekin, asfalto inprimatuarekin eta oinezkoentzako pasabide goratuekin, zirkulazio-abiadura murrizteko eta pertsonen segurtasuna hobetzeko.

Era berean, oinezkoen irisgarritasuna hobetuko dutela esan du udalak, iparraldeko espaloia handituz, oinezkoentzako pasabide berriak sortuz eta kalearen erdialdea espaloiaren kotara igota. Autobus-geralekua berrituko dute eta aparkalekuen egoera hobetuko. Motozikletentzako aparkalekuak eta bizikletentzako hiru aparkaleku jarriko dituzte eta mugikortasun urriko pertsonentzako 3 aparkaleku gordeko dituzte. Horren guztiaren helburua da espazioaren erakargarritasuna eta kalitatea handitzea, Mugikortasun Jasangarrirako Planaren barruan, aurrera eramango diren obrak eta Iurreamendiko Plan Berezian jasotako etorkizuneko jarduketak bateragarri eginez.

Azkenik, lurpeko edukiontzi zaharren eremuak egokituko dituzte eta argiteria-sarea aldatu eta hobetuko dute, argiteria, kalearen sekzio berrira eta oinezkoentzako pasabide berrietara egokitzeko eta eraginkortasun energetikorako LED argiak jarriko dituzte. Mendebaldeko biribilgunearen ondoan dagoen baranda kenduko dute eta egungo hiri-altzariak mantenduko dituzte, baita dauden zuhaitzak ere.

Egungo irlatxoetan, bi biribilguneen ondoan, antolamendutik kanpo geratzen diren 3 zuhaitz baino ez dira kenduko, Mugikortasun Plan Jasangarriak jasotzen duen bezala, Berazubi kaleko biribilgunearen ondoko pasabideetako bat atzera eramango delako eta espaloia zabalduko delako, mendebaldeko biribilgunera sartzeko irlatxoa murriztuz.

Eraberritze lanen barruan autobusaren geralekua berrituko dute, besteak beste. TOLOSAKO UDALA

Bidania-Goiatzen etxebizitza nahi dutenek izena emateko aukera dute

Udalak Kalegoena eremuko etxebizitzen proiektua aurkeztu die herritarrei, eta orain herritarren interesak jakin nahi dituzte

Kalegoenan etxebizitzak egin nahi dituzte. ATARIA

Erredakzioa Bidania-Goiatz

Herrian etxebizitza eskaintzaren eskasia kontuan hartuta hasi zen lanean Bidania-Goiazko Udala. Kalegoenan etxebizitzak egin ahal izateko lurrak erosteaz gain, proiektua aurreratzen ere hasiak dira.

Lur jabeekin egindako hainbat bileren ondoren, Bidania-Goiazko udalak guztien adostasuna lortu du eta honela Kalegoenako eremuaren kudeaketa osoa bereganatu du. Horrek, etorkizunean eman beharreko pauso asko erraztuko dizkiela azaldu dute.

Eremuari dagokionean udalak dagoeneko inbertsioa ere egina du. Zehazki 306.500 euro jarri ditu; 131.500 euro lurrak erosten eta 175.000 euro eremuan eraikiko diren etorkizuneko lokalen truke.

Aurrera begirako pausoak bi helburutan banatu ditu udalak. Alde batetik, etxebizitza eraikitzaile ezberdinei Kalegoena aurreproiektua erakutsiko diete, proiektuaren exekuzioa aurrera eramatera gonbidatuz. Eta bestetik, eta garrantzitsuena, herrian bizitzeko interesa dutenen zerrenda bat osatu nahi dute. Zerrenda, herritarrekin nahiz gaur egun herritarrak ez direnekin osatuko dutela aurreratu dute: «Honek, eraikitzaileei, herrian zer nolako etxebizitza eskaera maila dagoen ezagutaraziko die». Etorkizun hurbil batean, berriz, «zerrendan izena eman dutenekin, harremanetan jarri eta aurrera begirako lanketak egiten hasiko gara», esan dute.

Horregatik, herritarrei dei egin diete *Bidania-goiatz.eus* udaleko webgunearen bidez galdetegia betetzeko. Galdetegia laburra da, eta nolako etxebizitzak nahi diren zehazteko baliagarria izango zaio udalari. Bertan izena emateak ez duela inongo loturarik edo obligaziorik sortzen adierazi dute: «Baizik eta momentu honetan Bidania-Goiatzen bizitzeko asmoa duzula erakutsiko zenuke, eta proiektuaren eboluzioaz informatuta egoteko bidea irekiko zaizu».

Atzerriko ikasketen homologazioari buruzko saioa, gaur

AMASA–VILLABONA // Ikasketak eta beste herrialdeetako titulu akademikoak eduki eta nola homologatu ez dakitenentzat argibideak emateko saioa antolatu du Tolosaldea Garatzenenek. Gaur izango da, 17:30etik aurrera, Villabonako Subijana etxean. Bertaratzeko, aurrez eman behar da izena (646 05 70 80).

34

POSITIBO BERRI

11.944 test diagnostiko egin zituzten herenegun, eta horietatik, 1.314 (%11) positiboak izan ziren. Gipuzkoan, 440 atzeman zituzten, tartean, 34 Tolosaldean; Tolosan 17, Amasa-Villabonan 4, Ibarran eta Leaburu-Txaraman 3na, Zizurkilen 2 eta Adunan, Albizturren, Anoetan, Berrobin eta Iruran positibo bana.

Bost egunez Euskarabenturako 80 gaztek eta begiraleek Bidania-Goiatz izan dute aterpe; bi irteera egin dituzte, eta elkar ezagutu eta batik bat, ondo pasatzeko baliatu dituzte egunak

Ahaztuko ez duten abentura

Oihalezko etxolak bost egunez izan dituzte jarrita Bidania–Goiatzen; atzo guztia jaso behar izan zuten. E. MAIZ

Eneritz Maiz Etxarri
Bidania–Goiatz

Euskarabenturaren bigarren abentura ostiralean hasi zuten Bidania-Goiatzen, eta atzo oihalezko etxolak bildu, eta Aulestirako bidea hartu zuten. Euskal Herri osoko 80 gaztek abenturaren erdia bizitu dute Bidania-Goiatz eta bere inguruetan. Egoerara moldatu behar izan dute, eta hori aipatu du Asier Gondes begiraleak. Bi irteera baino ez dituztela egin dio, baina datorren urtean, ohiko formatura itzuli, eta berriz ere, Bidania-Goiaztik pasatzea gustatuko litzaioke.

Laurogei gaztetatik hiru adibide baino ez dira Ana Simpler tolosarra, Helene Zabaleta oñatiarra eta Eki Zulaika doneztebearra. «Oso egun politak izan dira», dio oñatiarrak. «Oso giro ona dago gure artean; esperientzia oso polita eta inoiz ahaztuko ez duguna izango da», esan du. Guztiak ezezagunak izanagatik, tolosarrak azkar lortu dutela «elkar ezagutu eta ondo ematea» gaineratu du. Zulaikak hirugarren egunean etorri behar izan zuela argitu du, baina «jendeak oso ongi hartu nau, eta erraza izan da lagunak egitea».

Bidania-Goiatzen lasaitasunean «gustura» egon dira guztiak. Bost egunen balorazioa egitean «ona» hitza da aipatzen dutena. «Beste herrietako jendea ezagutzea beti ondo etortzen da, aberasgarria da», dio Simplerrek.

Egin duten gustuko gauza bat aipatzeko eskatzean, tolosarrak urarekin bustiz eta musikarekin dantzan pasa zuten arratsaldea aipatu du. Zulaikak, berriz, pasta posta jolasa aukeratu du: «Ongi egon zen, eta baita bertan sortu zen giroa ere». Oñatiarrari, berriz, zaila suertatu zaio bat aukeratzea. Orokorrean beraien arteko harremanarekin geratzen da. Hirurak harritu dituen puntuetako bat jatekoa izan da. Orokorrean, janari «ona» ari direla jaten azpimarratu dute.

Euskarabenturaren ardatz nagusietako bat euskara da, eta ezaugarri du euskalkien festa. «Positibotzat» eta «aberasgarritzat» dute gazteek euskalki ezberdinak entzun ahal izatea. Euskalki ezberdinak ezagutzen ari direla diote, eta batzuk inoiz entzun gabeak izan arren, ondo dagoela azaldu dute. «Txoke» moduko bat izan dela batik bat hasieran iparraldeko herrialdeetako lagunekin hitz egitea, baina jada jarriak dira, eta elkar ulertzen dutela azaldu dute.

> **«Beste herrietako jendea ezagutzea beti ondo etortzen da, aberasgarria da»**
> ANA SIMPLER
> GAZTEA

> **«Esperientzia oso polita eta inoiz ahaztuko ez duguna izango da»**
> HELENE ZABALETA
> GAZTEA

> **«Merezi du bost egun lan egiten egoteak, gero, aurten ez, baina hilabete oso bat egon zaitezke-eta»**
> EKI ZULAIKA
> GAZTEA

Euskarabenturan parte hartzen ari diren 80 gaztetatik hiru dira Ana Simpler, Helene Zabaleta eta Eki Zulaika. E. MAIZ

Hurrengo urteei begira gazteak animatu dituzte: «Hasieran kosta egiten da lan egitea, baina gero eskertzen da», dio Simplerrek. «Aukera duenak lana egin dezala» azpimarratu du Zabaletak, eta Zulaikak gaineratu du: «Merezi du bost egun lan egiten egoteak, gero, hemen, aurten ez, baina hilabete oso bat egon zaitezke-eta».

ERAKUNDE PUBLIKOEN BISITA

Irteerak, jolasak, atsedenerako tarteak, ezustekoak eta bisitak ere izan dituzte. Tartean, laguntzaile dituzten erakunde publiko desberdinen bisita jaso dute: Estibalitz Alkorta Eusko Jaurlaritzako Euskara Sustapen zuzendaria, Garbiñe Mendizabal Gipuzkoako Foru Aldundiko Hizkuntza Berdintasunerako zuzendari nagusia eta Agurtzane Zelaia Bidania-Goiatzeko alkatea. «Eesperientzia hau gogoratuko duzue, eta garrantzitsuena izango da oroitzapen horiek euskaraz izango dituzuela», esan zien, besteak beste, Alkortak.

Lasai ederrean ibili dira Bidania–Goiazko txokoetan. E. MAIZ

Erakunde publikoetako ordezkariekin Euskarabenturako kideak EUSKARABENTURA

Agurtzane Belaunzaran
Berastegi



Ezeiza botanikak txunditurik dauka eta bere pasioa da. PEDRAM YAZDANI

«Kaktus landare batzuk perfekzio geometrikora iristen dira»

IÑAKI EZEIZA EGUES LOREZAIN AFIZIONATUA

Lorategi botanikoa dirudi Elduako kaskoan dagoen Zelaitxo etxeko inguruak; lorezain fidela da Iñaki Ezeiza Egues, eta amari zor dio loreekiko zaletasuna

Iñaki Ezeiza Egues (Eldua, 1960) da Elduako kaskoan dagoen Zelaitxo etxeko lorategiaren arduraduna. Gaztetan «Elduatik noiz Tolosara joango» bizi omen zen eta harako bidea egin zuenean eldumiña sentitu zuela aitortu du. Amari zor dio loreekiko zaletasuna, berari laguntzen hasi eta «landareen magiak txunditu» zuela dio. Adaska bat jarri eta *ttak* landarea itsatsi, hazia bota eta sekulako loreak jaso ordainetan. Pasioz hitz egiten du landareez. Palmondoak, bananondoak, kaktusak, landare gozoak, tropikalak, exotikoak, hortentsiak, koloretako kalak... han eta hemen. Elduako isiltasuna girotzen dute lorategiko txintxirrinenen doinu gozoek, paradisua deitu dio Ezeizak sorlekuari eta bertara hurbiltzen den edonork ulertuko du zergatia.

Begiek badute hemen non gozatua! Zenbat kaktus dituzu?

300 bat inguru izango ditut, guztiak loreontzietan sartuta. Espezie berdineko asko ditut, hori bai. Gaixotasun moduko bat ere badut, ezin inoiz ezer bota! Landareren bat puskatzen bada, aldaxka hartu eta loreontzian sartzen dut eta horrela joan naiz pilatzen. Hemen dagoen landare bakoitza nik ekarri, landatu edo hazitik ereindakoa da. Denak ezagutzen ditut eta baten bat falta denean, non utzi dudan erotzen bila ibiltzen naiz.

Nondik datorkizu kaktusekiko zaletasuna?

Ameriketako Estatu Batuetara egin genuen ezkontza bidaia eta txundituta utzi ninduten hango lorategiek. Ahozabalik geratu nintzen, ez nekien hainbeste kaktus espezie ezberdin bazeundenik ere. Han loreentzako zegoen afizioa ez zegoen garai hartan hemen. Irudi horiek iltzatuta geratu zitzaizkidan. Orain etxe ondoak txukun eta lorez inguratuta ikusten dira hemen, loreek eta landareek espazioa irabazi dute.

Garai hartan hemen eskuratzea erraza al zen?

Ez, oso zaila zen, bizitegietan nekeza zen kaktusak topatzea, orain nonahi saltzen dituzte baina. Nik mediterraneora egiten nituen bidaiak aprobetxatzen nituen kaktusak erosteko edo adaxkak lorategietatik ekartzeko.

Gogoan al duzu noiz erosi zenuen lehen landarea?

Bidaia hauetako batean izan zen, denda batean kaktus mordoa ikusi nituen salgai, prezio onean gainera. Kotxeko maletategia beteta ekarri nuen. Nola zaindu arrastorik ez nuen, baina oraindik orduan erositako kaktus batzuk hemen daude, 25-30 urte izango dituzte.

Kaktusena mundu bat da.

Mundu zabal eta zoragarria gainera! Kaktus familia ezberdinak daude eta bata bestearekin zerikusirik ez dute. Landare hauen funtzionamenduak txunditzen nau; morfologiak, bizirauteko sistemak, ura gordetzekoak, beraien burua babestekoak, azkarrak dira oso. Orokorrean jendeak, arantzekin lotzen ditu eta desatseginak diren sentsazioa duenik ere bada. Baina arantzarik gabekoak ere asko dira. Gizakia bizkorra izango da, baina ez du landare hauen formak egiteko talenturik. Kaktus landare batzuk perfekzio geometrikora iristen dira.

Mexikok du kaktus espezie gehien. Elduako klima ez da ba Mexikokoa!

Ez noski! Hezetasuna ez dute batere maite landare hauek, baina begira non bizi garen, gure basoei begiratu besterik ez dago, Elduan bertan paradisuan gaudela dirudi hainbeste berde tonalitaterekin. Hezetasuna, barraskiloak eta bareak ditut etsairik handienak, barraskiloek zaka-zaka jaten dizkidate kaktusak arantzen beldurrik gabe, baita landare gozoak ere. Euria noizik eta behin maite dute baina berozale amorratuak dira. Beroa jarraian egiten duenean, nabari egiten zaio landareari bizirik dagoela, mugitzen hasten dira, berdetzen. Euporbiak adibidez, ez du 15 graduz beherako klima maite.

Eta negua luzea da gurean, zer egiten duzu beroa hainbeste maite duten 300 landarerekin?

Banan-banan hartu eta etxe azpian negutegi modukoa atontzen dut eta hantxe uzten ditut udaberriko goxoa iritsi bitartean. Landare altuenak berriz, Elduako elizara eramaten ditut eta han pasatzen dute negua.

Eskuliburuek edo esperientziak eman dizu landareak zaintzeko jakituria.

Eskuliburu mordoxka ditut. Landareen munduarekin lotura duten irakurketak egiten ditut erabat eta anaiak mugikorreko aplikazioak bazirela esan zidanetik, mundu bat ireki zait horrekin ere. Hala ere, urteen eta lanaren poderioz autodidakta naiz.

Hauen zaintzaren sekreturen bat aitortzerik bai?

Lurra oso garrantzitsua da kaktusak landatzeko, drainatze errazeko lurra behar du, hondartsua, porotsua azken batean, ura loreontzitik erraz ateratzeko. Errekako lurra adibidez mundiala da eta etxeko konposta! Kaktusen aldaxkak landatzeko berriz, zauriak ondo lehortua egon behar du, hezetasuna badu gaixotasuna ere hurbil izango baitu.

Loreei hitz egiten al diezu?

Nik ez diet hitz egiten, baina landareetan aldaketak sumatzen ditudanean, hazi egin direlako, berdetasuna hartu dutelako edo indartzen ari direlako, sekulako poza ematen didate. Hunkitu egiten naute eta ahalik eta ondoen zaintzen saiatzen naiz. Gaizki ikusten ditudanean edo kaktus bat hiltzen zaidanean, mina eta pena sentitzen ditudan bezalaxe.

«Lurra oso garrantztsua da kaktusak landatzeko, drainatze errazeko lurra behar du»

Zure bidaietan lorategi botanikoa non, zu han.

Hutsik egin gabe bisitatu beharreko tokia izaten da lorategi botanikoa. Espainian, Kanariar Uharteak paradisua dira horretarako, Mediterraneoan ere badaude eta Europako hiriburuetan zer esanik ez. Gozamena da niretzako lorategi hauek bisitatzea. Emazteak ere gustuko ditu landareak eta egun bete pasatzen dugu botanikoetan. Han haziak eskuratu eta etxera etortzeko gogoz egoten naiz haziak landatzeko eta prozesua jarraitzeko.

Hazitik ateratzen saiatu al zara? Pazientzia ere lorezainaren dohaina da ezta?

Loreek bere oinarrian haziak dituzte eta horiek landatuz gero urtebetera edo punta bat agian azaltzen da. Oso landare sentiberak dira eta pazientzia handia behar da hazia landatzetik landarea lortzeko.

Landare kuttunik ba al duzu?

*Cephalocereus*ak, *zahar burua* bezala ezagutuak ile zuria dutelako, maiteak ditut. Urteak daramatzate nirekin eta seme-alabak bezala, hazten ikusi ditut.

Lurraldebus autobus zerbitzuan hilabete hasieran egindako aldaketak bertan behera utzi ditu aldundiak. ATARIA

Autobus zerbitzuan murrizketak bertan behera utziko dituzte

Tolosatik Donostiara herriz herriko BU07 linearen autobus zerbitzuaren maiztasuna, berriro ere, ordu erdikoa izango da irailetik aurrera; aldundiak atzera egin du aldaketarekin

Erredakzioa

Uztailaren 1ean sartu zen indarrean Lurraldebusen ordutegi berria eta, besteak beste, Tolosatik Donostiara herriz herri doan zerbitzuaren maiztasuna 30 minutuerokoa izatetik, 60 minutuerokoa izatera murriztu da, Gipuzkoako Foru Aldundiak horrela erabakita. Zerbitzu honen erabiltzaileen kezka eta ezinegona ikusita, Amasa-Villabonako eta Irurako udal ordezkariak Gipuzkoako Foru Aldundiko Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako arduradun politikoekin eta teknikoekin egon dira, Buruntzaldeko beste hainbat alkate eta udal ordezkarirekin batera.

Mugikortasun eta Lurralde Antolaketako diputatu Rafaela Romerori Lurraldebuseko erabiltzaileen «haserrea eta ezinegona» helarazi zieten Tolosa eta Donostia bitarteko herrietako ordezkariek. Era berean, eskaera bat jarri dute mahai gainean: autobus zerbitzu horren maiztasuna ordu erdikoa izatea, uztailaren 1era arte zegoen moduan. Aldundiko ordezkariek eskaera ulertu, eta, irailetik aurrera, zerbitzuaren maiztasuna lehengora bueltatzeko konpromisoa hartu dute.

Amasa-Villabonako Udalak esan du bilera horren emaitza «oso positiboa» izan dela eta Gipuzkoako Foru Aldundiak hartutako konpromisoa betetzea espero duela. «Autobus garraio publikoa bultzatu nahi bada, autobus zerbitzuen maiztasunetan murrizketak egiteak ez du inolako zentzurik», esan dute Amasa-Villabonako udal ordezkariek.

Trafikoaren inguruko erakusketa jarri dute Iruran

Udaletxe atarian egongo da ikusgai aste osoan zehar; ostiralean udal ordezkariak herritarren zalantzak argituko dituzte erakusketa gunean

Erredakzioa Irura

GI-3650 errepideko trafikoa lasaitzeko arazoaz hitz egiteko herri batzarra egin zuen Irurako Udalak ekainaren 22an. Bertan aurkeztu zen Gea21 enpresak gaiaren inguruan egin duen txostena eta orain lanketa horren puntu nagusiak jarri dituzte ikusgai udaletxe atarian dagoen erakusketan.

Besteak beste, Irurako trafikoaren inguruko datuak bildu dituzte eta ibilgailu kopurua, sortzen den zarata eta gertatu diren istripuen ingurukoak jaso dira paneletan. Trafikoa gutxitzeko proposamenak ere landu dituzte, eta autobidearekin lotura egiteko dauden aukera ezberdinak aztertu. Herriko eragileen artean banatu den galdetegiaren emaitzak ere kontsultatu daitezke erakusketan.

Etzi, ostirala, 10:00etatik 11:00etara udal ordezkariek herritarren zalantzak argituko dituzte erakusketa gunean bertan joan den ostiralean egin bezala. Herritarrek euren ekarpenak egin ahal izango dizkiote txostenari eta ondoren azken proposamenarekin joko du udalak Gipuzkoako Foru Aldundira.

Irurako Udalaren webgunean irakurri daiteke Gea21 enpresak landu duen txostena, osorik.

Udaletxe atarian, San Migel plazan jarri dute erakusketa. J.M.

Hilberriak eta urteurrenak

Jose Ramon Elortza Oiartzabal

Atzo hil zen 75 urterekin.

Emaztea: Rosa Mari Saez de Egilaz; seme-alabak: Igor eta Xabier;
bilobak: Aizpea, Irai, Lea eta Elai; arreba: Mª Karmen;
amaginarreba: Pakita Murgiondo; ezkon anaia-arrebak eta gainerako ahaideak.

ORMAIZTEGIn, 2021eko uztailaren 21ean
HELBIDEA: San Andres 17
OHARRA: Gorpua Beasaingo, GAUR ASTEAZKENA, GOIERRI BEILATOKIAN egongo da 11:00-13:00 eta 17:00-19:30.

ataria n jarrita Urola Kostako eta Goierriko Hitzetan DOAN

Eskelak orain merkeago!

TXIKIA (82mm X 64mm): 110 € • **Harpidedunentzat 55 €**
HANDIA (124mm X 64mm): 160 € • **Harpidedunentzat 80 €**
ESKERTZA (38mm X 64mm): 60 € • **Harpidedunentzat 30 €**
bez barne

ESKELAK • ataria@ataria.eus • Tel.: 943-65 56 95
Astelehenetik asteazkenera 18:30ak arte hartzen ditugu •
Ostegunetan 11:30ak arte hartzen ditugu

Aurreikuspenak gainditu dituzte pilota udalekuek

45 haurrek hartu dute parte Behar Zana Pilota Elkarteak antolatutako ekimenetan; bertan ikasitakoa datorren denboraldian zehar praktikan jartzea espero dute elkartetik

J. Artutxa Amasa-Villabona

Behar bati erantzun nahian, eta haur eta gaztetxoengan pilota sustatzeko helburuarekin, Euskal Pilota eta Esku Pilota Kanpusak antolatzea erabaki zuen Amasa-Villabonako Behar Zana Pilota Elkarteak. Ekainaren 27tik uztailaren 9ra bitarte egin dute eta erantzun bikaina izan du. Guztira, Gipuzkoa osoko herri ezberdinetatik joandako 45 neska-mutilek hartu dute parte, zazpi begiraleren ardurapean. «Aurreikuspen guztiak gainditu ditugu eta oso arrakastatsua izan da, ez baitzegoen haur gehiagorentzako lekurik».

Euskal Pilota Kanpusean, pilota jolasak landu zituzten, batez ere gazteenei begira, euskal pilota gertuagotik ezagutu zezaten. Esku Pilota Kanpusean, berriz, alderdi teknikoa landu zuten, lehendik pilotan aritutakoak zirenekin. Modalitateei dagokienez, trinketea, pasaka, bote luzea eta pala probatu dituzte. Horrez gain, plaza librean jolastu dira eta sakarria edo botaharriarekin trebatu dira. Eskualdeko luzera eta estilo ezberdinetako hamaika pilotalekutan egin dituzte jarduera horiek. Trinketean aritutako egunetan, munduko txapeldunordea eta elkarteko pilotaria den Eneko Maiz billabonatarra izan dute teknikari lanetan.

Azken egunean, Esku Pilota Kanpuseko Finalak jokatzeaz gain, haurrek solasaldi «interesgarria» izan zutela nabarmendu dute Behar Zanatik: «Txapeldun handien bisita jaso zuten. Oinatz Bengoetxea, Jokin Altuna eta Iñaki Artola izan ziren Bear Zana pilotalekuan, baita begirale lanetan aritu diren Axier Arteaga eta Miriam Arrilaga ere».

JOLASETIK JOKORA IGAROTZEKO

Pilota ardatz hartuta burutu dute plangintza osoa, eta besteak beste, elikadura osasuntsuaz kontzientziatzea, naturarekiko harremana sendotzea, jarduera fisiko egokiak burutzea edota lagunarte jator batean aisialdiaz gozatzea izan dira landutako helburuak.

Azken xedea, haur eta gaztetxoak, aurrerantzean ere, egunerokotasunean pilotarekin zerikusia duten jardueretan aritzea zen. Elkartean badakite azken urte eta erdia oso gogorra izan dela, zailtasun handiak izan dituztela. «Hala ere, pilota ziztadak eskaini behar zitzaizkien pilota gustuko duten haurrei. Gure kanpusean izena eman zutenek, udaran zehar jarrai dezatela pilotan jolasten, eta irailean, denboraldi berria hastean, jokatu dezatela pilotan, bakoitzak bere herrian, bere herriko pilota taldean», esan dute.

Elkartetik aurreratu dutenez, datozen ekitaldietarako kontuan hartuko dituzte hobetzeko proposamen guztiak. «Pilotaren alde lanean jarraitzeko indarra ematen digu guzti honek; asmoa eta gogoa ditugu horretarako». Zizurkilgo, Adunako eta Irurako udalak ere eskertu dituzte, baita «bereziki» Amasa-Villabonako Udala ere, «pilotaren alde egindako ahaleginagatik, eta udalekuak aurrera atera ahal izateko erraztasun guztiak emateagatik», gaineratu dute.

GAZTEEN FINALERDIAK, ERABAKITA

Azken astean, Behar Zana Pilota Elkarteak antolatutako Binakako Santio Txapelketako final-laurdenetako partidak jokatu dira, gazteen mailan. Ondorioz, erabakita geratu dira finalerdietako partidak: Olasagasti-Iraola / Apaolaza-Oiartzabal eta Jara-Beloki / Sorondo-Olaizola. Bihar izango dira bi neurketak, 18:30ean hasita, Behar Zana frontoian. KARLIS MEDRANO

Eskualdeko bederatzi kirolari Olinpiar Jokoen historian

Erredakzioa

Heldu da azken hilabeteetako prestaketa fisikoaren helmuga zeharkatzeko momentua. Tokion (Japonia), koronabirusaren pandemia hedatzen hasi zen eremutik gertu, milaka kirolari lehiatuko dira, etzi hasi eta abuztuaren 8ra bitarte ospatuko diren 2020ko Olinpiar Jokoetan.

Tartean, Euskal Herriko 30 kirolari lehiatuko dira, baina ez da eskualdeko ordezkaririk izango. Leire Olaberria ikaztegietarra eta Xabier Fernandez ibartarra izan ziren azkenak, 2012ko Londresko Olinpiar Jokoetan. Denera, eskualdeko bederatzi kirolarik hartu izan dute parte, hiru domina eskuratuz.

ESKUALDEKO KIROLARIAK

Paris 1920. Gabino Lizarza (Berastegi), pisu jaurtiketan (atletismoa).
Amsterdam 1928. Ignacio Alkorta eta Jesus Izagirre (Tolosa), futbolean; Fernando Muñagorri (Asteasu), atletismoan.
Seul 1988. Ibon Urbieta (Tolosa), arraunean.
Bartzelona 1992. Urbieta, arraunean; Ainhoa Artolazabal (Tolosa), txirrindularitzan.
Atlanta 1996. Abraham Olano (Anoeta), txirrindularitzan (zilarrezko domina, erlojupeko lasterketan).
Sidney 2000. Olano, txirrindularitzan.
Atenas 2004. Xabier Fernandez (Ibarra), belan (urrezko domina).
Pekin 2008. Leire Olaberria (Ikaztegieta), txirrindularitzan; Fernandez, belan (zilarrezko domina).
Londres 2012. Olaberria, txirrindularitzan; Fernandez, belan.

Unai Iribar ibartarra da Euskaldun Torneoko lider berria

Igandean, hirugarren izan zen Gatzagako lasterketan, bi taldekideren atzetik; datozen egunetan, proba gehiagotan lehiatuko da

J. Artutxa Ibarra

Bizikleta gaineko sentsazio ezin hobeei jarraipena eman, eta emaitza bikainak eskuratzen jarraitzen du Unai Iribar txirrindulari ibartarrak. Pasa den igandean, hirugarren helmugaratu zen, Gatzagan egin zen Euskaldun Torneoko laugarren proban, Dorletako Ama XLIII. Saria lasterketan.

Erabateko nagusitasuna erakutsi zuen Laboral Kutxa - Euskadi Fundazioa taldeak, lehen hiru postuak bereganatuz. Aietz Lasa eta Xabier Isasa elkarrekin heldu ziren helmugara, eta Unai Iribar taldekide ibartarra izan zen hirugarren, Lizarte taldeko Unai Esparzari esprintean gailendu ondoren.

Arlaban gaina (Arrasate) igaro ondoren, lasterketako bigarren igoeraren jaitsieran, hiru txirrindularik egin zuten aurrera: Lasak, Isasak eta Ibai Ruiz de Arkautek; hau ere Laboral Kutxa taldeko txirrindularia. Gatzagako helmugara heldu aurreko azken igoeran, ordea, bakarrik geratu ziren Lasa eta Isasa.

Lortutako emaitzari esker, Euskaldun Torneoko sailkapen nagusian hirugarren postutik lehenengora igaro da Unai Iribar. Asteburu honetan, Helduz eta Euskaldun torneoetako probak izango dira, eta beraz, aldea handitzeko aukera izango du txirrindulari ibartarrak.

Lauburu Ibarra KE-k Euskal Ligan parte hartzea erabaki du

IBARRA // Harrobiko jokalari gazteak prestatzen jarraitzeko asmoz, 2021-2022 denboraldian, Euskal Ligan parte hartzeko erabakia hartu du Lauburu Ibarra KE-k. Ondorioz, azken urteetan Ohorezko Jubenil Mailan aritu, eta besteak beste, hiru liga irabazi dituen taldeak, bere postua galduko du. Aitor Arevalo izango da entrenatzailea.

Laskorain KE-n jokatzeko aukera, maila ezberdinetan

TOLOSA // Laskorain KE-k datorren denboraldirako harrobiko taldeak osatzeko izen-emate epea ireki du. Infantil, kadete, jubenil eta senior (23 urtetik behera) mailetako taldeak izango ditu. Izena eman nahi dutenek, *Labur.eus/laskorainke22* weborriko galdetegia bete edo *laskorainke@gmail.com* helbidera mezua idatzi behar dute.

ASTEAZKENA, 2021EKO UZTAILAK 21
Argitaratzailea: Tolosaldeko Komunikazio Taldea SM
Lege Gordailua: SS-1323-2013
Koordinatzailea: Rebeka Calvo Gonzalez
Kudeatzailea: Iban Urdapilleta Alkizalete
Egoitza: San Esteban, 20, Tolosa.
Telefonoa: 943 65 56 95.
E-posta: ataria@ataria.eus
Publizitatea: 661 678 818. publi@ataria.eus
Tolosa: 687 410 082. tolosa@ataria.eus
Villabona-Aiztondo: 687 410 022. villabona-aiztondo@ataria.eus
Anoetaldea: 687 410 022. anoetaldea@ataria.eus
Ibarraldea: 687 410 118. ibarraldea@ataria.eus
Alegialdea: 687 410 034. alegialdea@ataria.eus
Kirolak: 673 06 11 32. kirolak@ataria.eus
Bezero arreta zerbitzua: 943 30 43 46

www.ataria.eus

ATARIA IRRATIA 107.6 FM

Tolosaldeko Ataria diruz laguntzen duten erakundeak:
Udalak: Abaltzisketa, Aduna, Albiztur, Alegia, Alkiza, Altzo, Amezketa, Anoeta, Asteasu, Baliarrain, Belauntza, Berastegi, Berrobi, Bidania-Goiatz, Elduain, Gaztelu, Hernialde, Ibarra, Ikaztegieta, Irura, Larraul, Leaburu-Txarama, Lizartza, Orendain, Orexa, Tolosa, Amasa-Villabona eta Zizurkil

Tolosaldeko Komunikazio Taldea SMko kideak:
Tolosaldeko gizarte eragileak

ASTEAZKENA 21

AGENDA

Deialdiak

Alegia. The founes troup taldearen *Aukerak* ikuskizuna, Kalebeherako frontoian, 19:30ean.
Amasa-Villabona. Mantentze gimnasia, 09:30ean, ikastolako patioan.
Amasa-Villabona. Bubble Balls, Errebotako plazan, 16:00etan.
Amasa-Villabona. Atzerriko ikasketen homologazioari buruzko saioa, Subijana etxean, 17:30ean.
Tolosa. Mugi Tolosa, Zerkausitik, 10:30ean abiatuta.
Tolosa. Ohe elastikoak Trianguloa plazan.

Erakusketak

Hernialde. Herriko artisten lanak, udaletxeko kultur aretoan.
Tolosa. Jabetze Eskolako xilografia ikastaroko ikasleen lanak, Emakumeen Etxeko erakusleihoetan.
Tolosa. Edurne Sudupe Zabaloren *Mandala* erakusketa, 3 tabernan.

ATARIA IRRATIA

09:00. Baserritik. Lehen sektorea.
10:00. Amalurra. Ingurumena.
11:00. Postalak. Bidaien tartea.
12:00. Letren errepublika. Literaturari buruzko saioa.
15:00. Eleak eta beleak. Antzerkia.
20:00. (H)ari naizela. Bertsolaritza.
22:00. Mailu ta akuilu. Musika.

28 KANALA

08:00. 1, 2, 3 hemen da Miru!
11:00. Musika zuzenean
11:30. Gaurkoan Tolosaldetik
17:30. Gaurkoan Tolosaldetik
22:00. Atelier

FARMAZIAK

Gaur

IBARRA. Egunekoa. Edurne Mujika Martinez. Euskal Herria, 3. 943 67 09 15.
TOLOSA. Gauekoa. Lourdes Azpiroz Galarza. Larramendi kalea, 6. 943 67 51 18.

EGURALDIA

IKER IBARLUZEA

Gaur. Antzeko giroa. Berriro ere egun osoz eguzkia jaun eta jabe izango da. Arratsaldean goi-hodei batzuk agertuko dira, baina batere trabarik egin gabe eguzkiari. Haizeak ipar-ekialdetik joko du eta tenperatura maximoak antzeko balioetan mugituko dira, 28-30 graduan joz goia.

Bihar. Bero handia. Goizean goizetik zeruan urdina nagusituko da eta eguzkiak gogotik lan egiteko aukera izango du. Azken orduetan hodei baxu batzuk sartuko dira itsasotik, baina inolako ondoriorik gabe. Goizean haizea hego-ekialdetik ibiliko da. Arratsaldean, aldiz, ipar-mendebaldera aldatuko da. Tenperatura igo eta 31-33 graduan joko du goia.

TOLOSALDEKO ATARIAk ez du bere gain hartzen egunkarian adierazitako esanen eta iritzien erantzukizunik.

Kiroldegia berritzen ari dira Samaniegon

Erdi sotoko planta, aldagelen sarrera inguruko kanpoaldea eta estalkia eraberrituko dituzte; ikasturte berrirako prest egongo da

Itxura berria izango du Samaniegoko kiroldegiak ikasturte berrian. ATARIA

Erredakzioa Tolosa

Samaniego Herri Eskolako kiroldegiko eraikina birgaitzeko lanak hasi dituzte aste honetan. Tolosako Udalak esan duenez, eraikinak mota ezberdineko kalteak dauzka eta horiek konponduko dituzte ikasturte berria hasi aurretik. Erdi sotoko planta hormigoizko egitura batek osatzen du eta oxidazio ugari topatu dute bertan. Kaltetutako egitura hori saneatuko dute (zutabe, habe eta habexkak) eta bertako aireztapenerako irteeren azalerak handituko dituzte hego-ekialdeko fatxadan. Hautsitako edo lekualdatutako hormigoizko gangatilak ere konpondu edo ordezkatuko dituzte. Aldagelen sarrera inguruko kanpoaldean, estaldura jarraia eta iragazgaitza ere ipiniko dute. Lanak Uzturpe eraikuntza enpresak egingo ditu (17.058,32 euro) eta bi hilabeteko epea du lanak gauzatzeko.

ESTALKIAREN ERABERRITZEA

Lan horiez gain, eraikinaren estalkia ere eraberrituko dute. Maldadun isurialdeen, buruhormen eta fatxadaren txapazko estaldura ordezkatuko dute eta txapa lakatu eta grekatu berria ipiniko dute. Estaldura kentzean, egitura sendotzeko lanak egingo dituzte estaldura berria jarri aurretik. Ipar-ekialdeko eta hego-mendebaldeko beirateen ordez polikarbonato zelularra eta altzairuzko lamak jarriko dituzte, kirol-kantxaren aireztapena eta argiztapena errazteko. Egiturari dagokionez, alde batetik, zutabe metaliko berriak jarriko dituzte hormaren parean, eta goiko estalkira arte luzatuko dute, eta bestetik, profil eta pletina metalikoak soldatuko dituzte. Egituran suteei aurre egiten laguntzeko tratamendua egingo dute. Lan horiek Cerramientos Industriales Cubertek SL enpresak egingo ditu (112.511,33 euro) eta ikasturte berria hasi aurretik amaitu beharko ditu.

ZORION AGURRAK

Argazkia bi egun lehenago ekarri mesedez

943 65 56 95
ataria@ataria.eus
San Esteban 20
Tolosa

Urtebetzeak, urrezko ezteiak, ezkontzak, jaioberriak...

www.ataria.eus · 107.6 fm ·

zozketak

Atarikideentzat Iparra Beer pack bat daukagu

Atarikideen artean Iparra Beer pack bat zozkatzen dugu.

Zozketetan parte hartzeko Osteguna 11:00ak arte: 943 65 56 95 edo www.ataria.eus